

LAN-AGINDUAK
C40/04: LANGILEEK OHIKO PRENTSETAN
EGIN BEHARREKO MANTENTZE
PREBENTIBOA

Ondorengo txostenean, makina hauei **langileek** egin behar dioten mantentze prebentiboa proposatzen da.

Mantentze-lan hau 3 ataletan banatzen da:

- 1. Olioztatze-zirkuitua eta olioztatze-puntuen mantentzea.**
- 2. Koadro pneumatiko eta elementu pneumatikoen mantentzea.**
- 3. Enbragearen mantentzea.**
- 4. Elikatzaile automatikoaren mantentzea.**

Ondoren, puntu bakoitzean egin behar den mantentzea eta maiztasuna adierazten dira.

1.-OLIOZTATZE-ZIRKUITUA ETA OLIOZTATZE-PUNTUEN MANTENTZEA.

✓ **Olioztatze-zirkuitua:**



Goiko erretilutik,
olioa zirrikitu honetara
jausten da. Ez du
gainezka egin behar.

Zirrikitu honetatik
iragazkira joaten da. Ez
da zikinez bete behar.


Argitaratua:	KAL. -KUDEAKETA SAILA
Berrikusita:	Mantzentze-lanetako burua Produkzioko burua
Onartua:	Kal. Kudeaketako zuzendaria

- ✓ **Ardatzetik olioia irteten den eta gidetan olioia dagoen begiratu.**

Koipeztatzaile automatikoak

Ardatzeko puntu
hautan koipea egon
behar da

Gidetan olioia egon
behar da



- ✓ **Makina denei, txanda hasieran deposituko olio-maila begiratu.**

KOIKE-DEPOSITUA


OLIO-DEPOSITUA



2.-KOADRO PNEUMATIKO ETA ELEMENTU PNEUMATIKOEN MANTENTZEA.

Ondorengo osagaien funtzionamendu egokia kontrolatu:

- ✓ **Airearen iragazkia:** Egunero iragazkia purgatu behar da.



Airearen iragazkia askatu
eta garbitu beharra dago.

Presostatoa

- ✓ **Lubrifikatzailea:** Egunero olioaren kontsumoa kontrolatu.

3.-ENBRAGEAREN MANTENTZEA.

- ✓ **Enbragearen zarata:** Bolantea biraka dabilela, ez du ukipen-zaratarik atera behar. Enbragatzeko orduan ere, ez du zarata arrarorik atera behar. Ezer arraroa sumatuz gero, produkzioko arduradunari deitu.

4.-ELIKATZAILE AUTOMATIKOAREN MANTENTZEA.

Elikatzailearen mantentzean, bi gauza kontrolatu behar ditugu:

- ✓ **Uhal garraiatzaileak:** Erabileraren poderioz, uhal hauek gastatu eta apurtu egiten dira. Komenigarria da egunero uhal hauen egoera ikuskatzea eta, arazoak ikusiz gero, jakinaraztea.



- ✓ **Elikatzaile automatikoko despaletizatzailea:** Despaletizatzaileak, prentsak bezala, bere mantentze-taldea du. Talde honek lubrifikatzaile bat du eta komenigarria da egunero lubrifikatzailearen olio-maila ikuskatzea eta airearen iragazkia purgatzea.



[Enpresaren izena eta logotipoa]	LAN-AGINDUAK C40/04: LANGILEAK OHIKO PRENTSETAN EGIN BEHARREKO MANTENTZE PREBENTIBOA	Berrikusketa: 00 Data: 01-11-26 Orria: 5/5
----------------------------------	---	--

MANTENTZE PREBENTIBOKO TAULA

ATALA	ELEMENTUAK	NOLA	NOIZ	NOR
OLIOZTATZE ZIRKUITUA ETA PUNTUAK	Zirkuitua	301044-ko 1. eta 6. puntuetan olioak ez du gainezka egin behar.	Egunero	Langilea
	Puntuak	Ardatzetik olioaren irteten den eta gidetan olioaren dagoen begiratu	Egunero	Langilea
	Deposituen	Koipeztatzearen deposituen maila begiratu	Egunero	Langilea
KOADRO PNEUMATIKOAK ETA ELEMENTUAK	Airearen iragazkia	Purgatu	Egunero	Langilea
	Lubrifikatzailea	Olioaren maila begiratu	Egunero	Langilea
ENBRAGEAREN MANTENTZEA	Zaratak	Makinak zaratarik ateratzen duen entzun	Egunero	Langilea
DOBLATZEKO OLIO DEPOSITUA	Depositua eta elektrobalbula	Ziurtatu olioaren ondo botatzen duela eta deposituan olioaren dagoela.	8 ordutik behin	Langilea
ELIKATZAILE AUTOMATIKOA	Uhal garraiatzaileak	Hauen itxura begiratu	Egunero	Langilea
	Airearen iragazkia	Purgatu	Egunero	Langilea
	Lubrifikatzailea	Olioaren maila begiratu	Egunero	Langilea